

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2012ko maiatzaren 7an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

7.- UDALAREN OBRETAKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOKO LAGUNTZA TEKNIKOA EMOTEKO ZERBITZUA ESLEITZEA.

Xedea

Bermeoko Udalaren obretako segurtasun eta osasun arloan laguntza tekniko a emoteko zerbitzua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2012ko otsailaren 20an Tokiko Gobernu Batzarrak Bermeoko Udalaren obretako segurtasun eta osasun arloan laguntza tekniko a emoteko zerbitzua esleitzeko baldintza administratiboak onartzea erabagi eban.

Bigarrena: 2012ko martiaren 14an jardunbide negoziaduan parte hartzeko gonbiteak bialdu ziran hiru enpresari.

Hirugarrena: 2012ko apirilaren 2an Applus enpreseak proposamena aurkeztu eban.

Laugarrena: 2012ko apirilaren 26an Jon Goitia Leniz arkitektoak txostena egin eban.

Argudioak

Bakarra: Aitatutako kontratzino prozesura enpresa bakar bat aurkeztu da: APPLUS NORCONTROL SLU

Aurkeztutako dokumentazinoa aztertu ondoren APPLUS NORCONTROL SLU enpresearen proposamena egokia dala ikusi da. Eskaintzan daukan beherapena %15ekoa da.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Bermeoko Udalaren obretako segurtasun eta osasun arloan laguntza tekniko a emoteko zerbitzua Applus Norcontrol, SLU enpreseari 51.000 eurotan (BEZ kanpo) esleitzea. Esleipena baldintza administratiboetan zehaztutako prezioaren % 15eko beherapenagaz egiten da.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2012ko maiatzaren 10ean.

ONETSIA
ALKATEA